



JUSTIZIA ETA GIZA ESKUBIDEEN
SAILA
Justizia Sailburuordetza
Justizia Administrazioako Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE JUSTICIA Y
DERECHOS HUMANOS
Viceconsejería de Justicia
Dirección de la Administración de Justicia

Ebazpena, Justizia Administrazioako zuzendariarena, Eibarko barruti judizialean Bulego Judiziala, udalerrietako Justizia Bulegoak eta bere elkarteetako eta Erregistro Zibilaren bulego nagusia ezartzeko data zehazten duena

Eibarko barruti judizialeko Justizia Administrazioako langileen lanpostu-zerrendak onartzen dituzten Justizia eta Giza Eskubideen sailburuaren 2026ko maiatzaren 6ko Aginduek, hirugarren apartatuan, ezartzen zuten bulego berrien ezarpen-data Justizia Administrazioako zuzendariaren ebazpen bidez ezarriko zela.

Aurreikuspen horren arabera, eta karrerako funtzionarioak lanpostu berrietara egokitzeko prozesua eta bitarteko funtzionarioak birkokatze prozesua amaitu ondoren, honako hau

EBAZTEN DUT

1. artikulua.- 2026ko irailaren 30ean, Eibarko barruti judizialean Bulego Judiziala, udalerrietako Justizia Bulegoak eta horien elkarteetako, eta Erregistro Zibilaren bulego nagusia ezarriko direla zehaztea.
2. artikulua.- 2026ko irailaren 29an bitarteko langile guztien lanpostu-uztea erabakitzea.
3. artikulua.- Erabakitzea 2026ko irailaren 30ean karrerako funtzionarioek lanpostu-jabetzea formalizatu beharko dutela, eta birkokatze-prozesu honetan lanpostua lortu duten bitarteko langileek dagokion izendapena formalizatu beharko dutela, telematikoki, Justiziako Atariaren bidez: www.justizia.eus
4. artikulua.- Ebazpen honek ez dio amaiera ematen administrazio-bideari, eta, honen aurka, gora jotzeko errekurtoa aurkez dakioko Justiziako sailburuordeari, hilabeteko epean, ebazpena argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, hala ezarrita baitago Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 121. eta 122. artikuluetan.

Vitoria-Gasteizen, sinadura elektronikoaren datan

MARIA DOLORES MOVILLA RIVAS
JUSTIZIA ADMINISTRAZIOKO ZUZENDARIA

Donostia - San Sebastián, 1 – 01010 VITORIA-GASTEIZ
r-humanos@euskadi.eus

